

# Mendaroko

# UDAL BULETINA

2025eko apirila

(más abajo en castellano)

MENDARO
1983

# Aurkibidea

**Mendaroko jubilatuen etxearen eta tabernaren proiektua idazteko lanak abian dira........................................................................3-4**

*Mendaroko Udalak proiektuaren idazketa aste gutxiren buruan amaitzea aurreikusten du, eta horrek jubilatuen etxearen eta tabernaren zerbitzuak hobetzeko aukera emango du*

**"Txirristaka Saria" Bertsopaper Lehiaketa antolatu dute Mendaroko Udalak eta In Leike Elkarteak...................................................5-6**

*Helburua Eskualdeko gazteen artean bertso idatzia sustatzea da*

**Debabarreneko Mankomunitateak martxan jarriko du hondakin organikoentzako edukiontzi marroien irekitze-sistema elektroniko berria......................................................................................7-8**

*Ekimen honen helburua da bilketa selektiboaren kalitatea hobetzea eta eskualdeko hondakin organikoen kudeaketa eraginkorragoa egitea*

**Martxan dira Mendaroko Merkataritza eta Ostalaritzaren Plangintza Estrategikoa osatzeko lanak...................................................9-10**

*Udalaren konpromisoa argia da: tokiko ehun ekonomikoa sendotzea eta haren garapen iraunkorra sustatuko duen ingurunea sortzea, eragile guztien inplikazio aktiboarekin*

**Bertako baso eta ekosistemak berreskuratzeko urratsak ematen dihardu Mendaroko Udala.......................................................................11-12**

*Bere txikitasunetik klima aldaketari aurre egiteko eman beharreko urrats guztiak emateko prestutasuna du Mendaroko gobernu taldeak*

**Errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina abiarazi dute UEMAK eta hainbat erakunde publikok.......................................................13-14**

*Gipuzkoan, aurten ere,*" Ogasunarekin euskaraz" *leloa erabiliko du aldundiak, eta UEMAk ere halaxe gehituko du Gipuzkoako udaletara zabaldutako euskarri guztietan*



# Mendaroko jubilatuen etxearen eta tabernaren proiektua idazteko lanak abian dira

*Mendaroko Udalak proiektuaren idazketa aste gutxiren buruan amaitzea aurreikusten du, eta horrek jubilatuen etxearen eta tabernaren zerbitzuak hobetzeko aukera emango du*

Mendaroko Udalak jubilatuen etxearen eta tabernaren proiektua idazteko lanak abian jarri ditu. Proiektu honek hiru helburu nagusi ditu: batetik, jubilatuen etxearen egungo eredua adin-talde horretako pertsona guztien beharrei erantzuteko egokitu nahi da; bestetik, jubilatuen tabernaren espazio eta instalazioak eguneratu eta hobetzea da helburua; eta azkenik, Udalak jabetza duen eraikin bat erabilera sozial eta kulturalei egokitu nahi zaio.

Mendaron jubilatuen kolektiboa oso anitza da, 60 urtetik 100 urteraino eta gorako pertsonak barne hartzen dituena. Adin-talde horretan, behar, sentimendu eta egoera desberdinak daude, eta horregatik, jubilatuen etxearen eredua egokitu behar da errealitate horretara.

Bestalde, jubilatuen tabernaren espazioa eta instalazioak zaharkituak daude, eta eguneratzea beharrezkoa da. Tabernaren espazioak langileentzat eta bezeroentzat oso mugatuak dira, eta horrek eragina du zerbitzuaren kalitatean.

Era berean, Udalak jabetza duen eraikin bat dago jubilatuen etxearen atzealdean, hainbat jarduera sozial eta kulturaletarako erabiltzen dena. Hala ere, eraikin honek ez du beharrezko baldintzarik eskaintzen, eta egokitzapenak behar ditu.

Proiektuaren helburua hiru espazio hauek integratzea da, espazio gehiago eta egokiagoak sortuz. Horretarako, Udalak arraindegiko lokalaren jabetza lortu du, eta jubilatuen etxea eta taberna berrantolatuko dira. Jubilatuen etxea udalaren lokal eta arraindegiaren gunean kokatuko da, eta tabernak espazio gehiago izango ditu, bai lan-eremuan (sukaldea, biltegia eta barra), bai bezeroentzako gunean. Tabernaren atzealdeko espazio zabala jarduera sozial eta kulturaletarako erabiliko da, hala nola hitzaldiak, erakusketak eta

aurkezpenak. Azkenik, egokitzapenek zarata eta usainak bezalako arazoak konpontzea ere bilatzen dute.



# "Txirristaka Saria" Bertsopaper Lehiaketa antolatu dute Mendaroko Udalak eta In Leike Elkarteak

***Helburua** Eskualdeko gazteen artean bertso idatzia sustatzea da*

Hemen, oinarrietan dituzue parte hartzeko baldintzak:

## Parte-hartzaileak

- **A Kategoria:** 2011n edo geroago jaiotakoak *(Debabarrenekoak bakarrik)*
- **B Kategoria:** 2007 eta 2010 artean jaiotakoak (biak barne)
- **C Kategoria:** 2006an edo lehenago jaiotakoak

## Lanek bete beharreko baldintzak

- Euskaraz, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak
- Gaia eta neurria libreak
- **Izenburua** eta **doinua** adierazi behar dira
- Kalitate minimoak bete behar dituzte
- **Bertso kopurua:**
    - A: 2-4 bertso
    - B: 4-8 bertso
    - C: 8-12 bertso (elkarren arteko batasuna izan behar dute)
- A eta B kategorietan gehienez 2 lan aurkeztu daitezke; C kategorian, lan 1

## Sariak

- **A Kategoria:**
    - 
        1. saria: 100 €-ko kultura bonoa

- 
   2. saria: 50 €-ko kultura bonoa

- **B Kategoria:**
  - 1. saria: 200 €
  - 2. saria: 150 €
- **C Kategoria:**
  - 1. saria: 1.000 € (*)
  - 2. saria: 500 € (*)
    (*PFEZ atxikipena aplikatuko zaie*)

## Nola parte hartu

**Azken eguna:** 2025eko maiatzaren 30a
Bide hauek erabil daitezke:

- **Postaz:** Mendaroko Udala, Herriko Enparantza Plaza, Garagartza, 20850 Mendaro
- **Emailez:** kultura@mendaro.eus
- **Udal webguneko galdetegia** erabiliz

**Argibide zehatzak** bidalketa bakoitzerako oinarrietan daude. Beti bidali behar dira egilearen datuak dokumentu edo gutun-azal itxi batean.

## Epaimahaia eta epaia

- 3 bertsolaritzako adituk osatuko dute epaimahaia
- Epaia **aldaezina** izango da
- Sariak hutsik gera daitezke, lanek maila nahikorik ez badute
- Sari-banaketa: 2025eko ekainean

## Beste kontu garrantzitsu batzuk

- Saritutako lanak ezin dira beste lehiaketetara aurkeztu.
- Mendaroko Udalak argitaratu edo ikuskizun bihurtu ahal izango ditu, urtebeteko epean.
- Saritu gabeko lanak hilabetez jaso daitezke Udalean; epe hori pasata, suntsitu daitezke.
- Lehen argitalpenaren eskubidea Udalak izango du; gainerako ustiapen eskubideak egilearenak izango dira.




# Debabarreneko Mankomunitateak martxan jarriko du hondakin organikoentzako edukiontzi marroien irekitze-sistema elektroniko berria

*Ekimen honen helburua da bilketa selektiboaren kalitatea hobetzea eta eskualdeko hondakin organikoen kudeaketa eraginkorragoa egitea*

Debabarreneko Mankomunitateak sistema elektroniko berri bat jarriko du martxan hondakin organikoentzako edukiontzi marroiak irekitzeko. Martxotik aurrera, edukiontzi horietara sartzeko, derrigorrezkoa izango da txartel elektroniko bat edo mugikorrerako aplikazio bat erabiltzea.

Gaur egun, Debabarrenan bilketa selektiboaren tasa %53,2koa da. Ekonomia zirkularrerako Hondakinen eta Lurzoru Kutsatuen Legeak ezartzen du gutxienez %55eko tasa lortu behar dela 2025ean, eta %60koa 2030ean. Helburu horiek betetzeko eta edukiontzi marroietan agertzen diren hondakin desegokiak gutxitzeko, Mankomunitateak sistema berri hau garatu du, hondakinen bereizketa eraginkorragoa eta trazabilitate handiagoa ahalbidetuko duena.

Sistema hau ezartzea Debabarreneko Mankomunitatearen jasangarritasunarekiko eta ekonomia zirkularrarekin duen konpromisoaren adierazgarri da. Helburua da hondakin organikoen kudeaketa egokia sustatzea eta ingurumen-inpaktua murriztea. Hondakinak ondo bereiztea funtsezkoa da ingurumen-kalteak gutxitzeko eta kudeaketa eredu jasangarriago baterantz aurrera egiteko. Material bakoitza dagokion edukiontzian uztean, birziklatzea eta lehengai gisa berrerabiltzea errazten dugu, baliabideen aprobetxamendua sustatuz eta hondakin desegokiak gutxituz.

**Nola funtzionatuko duen sistemak**

Hondakin organikoen bilketa optimizatzeko, edukiontzi marroiek irekitze-sistema elektronikoa izango dute. Herritarrek txartel elektroniko bat edo 'Ireki' mugikor-aplikazioa erabili beharko dute edukiontzietara sartzeko.

- Dagoeneko poltsa biodegradagarriak jasotzeko txartela dutenek, etxean jasoko dute txartel berria.
- Txartela jasotzen ez dutenek, beren udalerrian horretarako gaitutako arreta-bulegoetara jo beharko dute.
- 'Ireki' aplikazioaren bidez, txartelaren QR kodea eskaneatuta ere ireki ahal izango dira edukiontziak.

Kontuan hartu behar da, sistema berria martxan jartzen denean, orain arteko txartelak baliogabe geratuko direla.

**Informazio eta sentsibilizazio kanpaina**

Sistema berri hau ezartzeko trantsizioa errazteko, Mankomunitateak "*Birziklatzea joko garbia da. Erabili txartel marroia*" lelopean kanpaina informatiboa abiaraziko du. Bertan, eskualdeko erakunde eta kirolariek parte hartuko dute. Kanpainaren helburua da joko garbiaren kontzeptua hondakinen bereizketa egokiarekin lotzea eta herritarrak horren garrantziaz kontzientziatzea.

Kanpaina honek hainbat jarduera aurreikusten ditu:

- Etxe guztietara gutun informatiboak bidaltzea.
- Txartela jasotzeko eta zalantzak argitzeko bulego eta karpa informatiboak jartzea.
- Sare sozialetan sistema berriari buruzko informazio zehatza zabaltzea.
- Galderak argitzeko arreta telefonikoa: 629 031 252, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 18:00etara.

**Mendaroren kasuan, txartelaren erabilera derrigorrezkoa izango da maiatzaren 12tik aurrera.**

**Txartelak jasotzeko puntu eta datak Mendaron:**

- Maiatzaren 8an, 9an eta 10ean: Lokal Txuria (Jubilatuen Etxearen ondoan)

**Herrietako arreta-ordutegia:**

- Astelehenetik ostiralera: 10:00–14:00 eta 17:00–20:00
- Larunbatetan: 10:00–14:00

**Txartela jasotzeko beharrezko dokumentazioa:**

- Titularraren NAN/AIZ edo IFZ.
- Erroldatzea egiaztatzen duen dokumenturen bat (errolda ziurtagiria, alokairu kontratua edo hornidura-fakturaren bat titularraren izenean).
- Beste pertsona batek jasotzen badu, titularrak sinatutako baimena aurkeztu beharko du, bien datuekin eta bi NAN/AIZ edo IFZekin batera.

Sistema berri hau abian jartzeak aurrerapauso handia suposatzen du Debabarreneko hondakinen kudeaketan, bereizketa zehatzagoa ahalbidetuz eta hondakin desegokien murrizketa bultzatuz.



# Martxan dira Mendaroko Merkataritza eta Ostalaritzaren Plangintza Estrategikoa osatzeko lanak

*Udalaren konpromisoa argia da: tokiko ehun ekonomikoa sendotzea eta haren garapen iraunkorra sustatuko duen ingurunea sortzea, eragile guztien inplikazio aktiboarekin*

Abenduan dendariekin egindako bileran adostu bezala Mendaroko Udalak, Dendartean elkartearen laguntzarekin, Planifikazio Estrategiko bat jarri du martxan, herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektoreak indartzeko eta haien lehiakortasuna eta iraunkortasuna epe ertain eta luzera bermatzeko helburuarekin.

Datozen hilabeteetan hainbat lan egingo dira, sektore hauen gaur egungo egoera sakon aztertzeko, erronkak eta aukerak identifikatzeko eta Mendaroko errealitatera egokitutako ekintza-proposamenak diseinatzeko.

Lehen fasean, bi inkesta egin dira informazioa biltzeko: bata sektore hauetako profesionalentzat eta bestea herritarrentzat. Herritarrek modu digitalean bete ahal izan dute Mendaroko Udalaren web orriko inkesta.

Profesionalek email bidez jaso dute inkesta eta, aldi berean, paperean ere entregatu zaie beren establezimenduetan, erraztasun handiagoz parte hartu ahal izateko. Gainera, kaleko inkestak ere egin dira, herritarren ikuspegia osatzeko eta parte-hartze digitala ez dutenen iritzia jasotzeko.

Bestalde, udalerriko ezaugarri urbanistikoen azterketa egingo da, merkataritzarekin, ostalaritzarekin eta zerbitzuekin duten loturaren ikuspegitik. Informazio horrek ere lagunduko du sektore hauen errealitate osoagoa ezagutzen.

Inkestetatik eta azterketa urbanistikotik jasotako informazioa oinarri hartuta, bigarren fase batean, egoera hobetzeko eta identifikatutako beharrei erantzuteko ekintza-plan zehatz bat diseinatuko da.

Udaletik deia luzatu zaie bai sektoreetako profesionalei bai herritarrei, parte-hartze aktiboa izan dezaten prozesu honetan. “Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak

funtsezkoak dira Mendaroko bizitzan. Gure kaleei bizia ematen diete, enplegua sortzen dute, gertutasuna eta konfiantza eskaintzen dituzte, eta udalerriko egunerokotasuna egituratzen dute. Haien alde egitea, Mendaroren etorkizunaren alde egitea da", adierazi dute Udaletik.

**2025ean bi bonu kanpaina egingo dira bertako komertzioa bultzatu eta herritarrak bertan kontsumitzera bultzatzeko**

2024an egin zen bezalaxe 2025ean ere bi bonu kanpaina martxan jarri nahi ditu Udalak; lehenbizikoa otsailaren 22tik martxoaren 16ra burutu zen

Kanpaina hauen helburu nagusiak hurrengoak dira: kontsumo lokala sustatzea, herritarrei erosketak bertako dendetan egitea bultzatuz eta, horrela, tokiko ekonomia sendotuz; merkataritza txikiari laguntzea, bertako saltokiei euren salmentak eta ikusgarritasuna handitzeko plataforma bat eskainiz; eta komunitatea indartzea, Mendaroko bizilagunen eta merkatari txikien arteko harremanak sendotuz.



# Bertako baso eta ekosistemak berreskuratzeko urratsak ematen dihardu Mendaroko Udala

*Bere txikitasunetik klima aldaketari aurre egiteko eman beharreko urrats guztiak emateko prestutasuna du Mendaroko gobernu taldeak*

Gaur egun komunitate zientifikoak gehiengo handiz onartzen du aldaketa klimatikoari aurre egiteko gure eskuetan daukagun erraminta nagusienetakoa biodibertsitatearen kontserbazioan datzala. Zentzu horretan urrats desberdinak ematen dihardu azken hilabeteetan. Hurrengoak dira norabide honetan martxan jarri dituen zenbait ekimen.

## Intxusadi errekaren magaletan kokatutako lur saila erosiko du Mendaroko Udalak

Intxusadi errekaren Elgoibar aldeko magaletan kokatuta dagoen 40 Ha inguruko lursail bat da Mendaroko Udalak erosiko duena; zehazki Señorabaso eta Txistubaso izeneko eremuak hartzen dituena. Azken hamarkadetan intsignis pinu landaketak izan dira bertan baina 2022 eta 2023 urteetan mozketak egin zituztenetik beste landaketarik egin gabeko lurrak dira.

Behin erosketa gauzatutakoan ondare naturala kontserbatu eta modu jasangarrian kudeatzea izango litzateke helburua.

## Otsailaren 16an Zuhaitz Egun arrakastatsua

Lurrak erosi, modu jasangarrian kudeatu eta bertako ekosistemak berreskuratzeaz gain garrantzitsua da neurri hauek epe luzerako arnasa izan dezaten lan pedagogikoa ere egitea. Horretarako balio dute, hain zuzen ere, haurren eta familien partehartzearekin antolatzen diren zuhaitz egunek. Zuhaitzak landatzearekin batera hauek betetzen duten paper garrantzitsuaz jabetu eta ingurua errespetatzen ikasteko.

Iaz bezalaxe, aurten ere, Zuhaitz Eguna antolatu zuten otsailaren 16an Arno Guraso Elkarteak eta Udalak elkarlanean, Naurtzaindia elkarteko kideek lagunduta. Azken hauek

beharrezko azalpenak eman eta landare eta aitzurrak ekarri zituzten. Iaz bezalaxe Plazako Intsusadin Udalak erosi asmo dituen lurretan egin ziren landaketak, Goikola baserriko erreka gurutzatu eta bidean gora ekinda. 300 intxusa eta haritz landare sartu zituzten guztira bertan elkartu ziren 40tik gora lagunek.

**Banda marroiak jotako Arnogibeleko baso aprobetxamendua enkantera atera du Udalak**

Arnogibeleko komunsailetan 2000. urtean landatutako intsignis pinudi batzuk ditu Udalak. Hasieran garapen ona izan bazuten ere azken urteetan "banda marroia" izeneko gaixotasunak zuhaitz hauen hazkundean eragin nabarmena izan du eta gaur egun nahiko egoera txarrean aurkitzen dira. Hori ikusita Udalak sail hauetako baso aprobetxamendua enkantera ateratzea erabaki zuen pasa den urtarrileko plenoan.

Intxusadi erreka inguruetan erosi nahi dituen sailetan bezalaxe, komunsailetan ere, bertako basoak, espezieak eta ekosistemak lehengoratzeko asmoa dauka Udalak. Eta prozesu hori bizkortzeko planteatzen da koniferen landaketa zaharrak erretiratzea.




# Errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina abiarazi dute UEMAK eta hainbat erakunde publikok

*Gipuzkoan, aurten ere,* “Ogasunarekin euskaraz” *leloa erabiliko du aldundiak, eta UEMAk ere halaxe gehituko du Gipuzkoako udaletara zabaldutako euskarri guztietan*

Herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskaraz izan daitezen bultzatu nahian, errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina abiarazi dute apirilaren 1etik aurrera UEMAk eta hainbat erakunde publikok, elkarlanean. Izan ere, lurralde bakoitzeko foru ogasunaren arabera datak, webguneak, telefonoak eta gainerakoak aldatzen diren arren, moduak antzekoak dira kasu guztietan, eta horietan euskararen aldeko hautua egitea da kanpaina honekin UEMAk eta udalek lortu nahi dutena.

2024ko ekitaldiko errenta eta ondarea aitortzeko kanpainari ekin diote Hego Euskal Herriko foru ogasunek apirilarekin batera. Horiekin bat eginez, UEMAk, bertako kide diren udalekin eta foru ogasunekin elkarlanean, errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina abiarazi du aurten ere, herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskaraz izan daitezen bultzatu nahian. Errenta euskaraz egiten duen herritarren kopurua urtez urte gorantz ari den arren, errealitate soziolinguistikoak erakusten dituen datuetatik urrun dago oraindik, eta horretan eragin nahi dute aurten ere UEMAk eta udalek, herritarrei administrazioarekin ere euskaraz aritzeko deia eginez.

Araban eta Nafarroan apirilaren 8an hasiko da errenta aitortzeko epea. Gipuzkoan apirilaren 8an eta Bizkaian apirilaren 10ean, autolikidazio proposamenak eta internet bidezkoak egun batzuk lehenago egin daitezkeen arren tokian tokiko ogasunen egutegiaren arabera. Guztietan, ekainaren amaiera aldera arte egin ahal izango dira aitorpenak.

UEMAk, ohi bezala, udalekin eta hainbat erakunde publikorekin elkarlanean bideratzen du errenta euskaraz egiteko kanpaina, eta foru ogasun, eskualde edo udal elkarte bakoitzak moldatzen du bere beharren arabera. Mezu orokorra berbera da kasu

guztietan, baina foru ogasun, eskualde edo udal elkarte bakoitzak bere errealitate soziolinguistikoaren arabera moldatzen du kanpaina eta mezua. Baita udal bakoitzak ere, dagozkion datuekin eta bilakaerarekin. Horiek azaltzeko, besteak beste, *Errenta aitorpena euskaraz* lelodun kartel orokorra eta azalpen kartela jarri ditu eskura UEMAk, nork bere arabera moldatzeko aukerarekin.

Egoera soziolinguistikoa, ordea, ez da herritarren joera erakusten duen aldagai bakarra. Batzuetan alde handia dago euskaldun indizearen eta errenta euskaraz egiten dutenen artean. Dena dela, udalerririk euskaldunenetan egiten dira aitorpen gehien euskaraz, zenbakiak eta ehunekoak oso aldakorrak diren arren lurralde batetik bestera.

Gipuzkoan, esaterako, Zerain (%72), Orexa (%67), Ataun eta Baliarrain (%62), Amezketa (%60) dira iaz euskaraz errenta aitorpen gehien egin zituzten herriak, ehunekoetan.
Bizkaian, berriz, Mendexa (%27), Amoroto (%25), Aulesti (%22), Ispaster (%20) eta Berriatua (%17). Nafarroako Foru Ogasunak ez ditu ematen herriz herriko datuak, baina UEMAri jakinarazi diotenez, "aurreko urtekoekin alderatuta, aldaketa txikia izan da, eta UEMAko kide diren Nafarroako udalerri guztiak %0 eta %10 bitarteko portzentaian mantentzen dira".



# BOLETÍN MUNICIPAL

## de Mendaro

Abril de 2025

# Índice

**La redacción del proyecto del bar y del hogar del jubilado listo en unas semanas...............................................................................17-18**

*El proyecto que, según los dirigentes municipales, se prevé que esté redactado en pocas semanas, pretende dar una solución integral a estos problemas, aumentando y reorganizando el espacio total*

**El Ayuntamiento de Mendaro y la Asociación In Leike organizan el Concurso "Txirristaka Saria" (Concurso de Bertsopaperak)...........................................................................19-20**

*El* ***objetivo*** *es fomentar la creación escrita de bertsos entre jóvenes del entorno*

**La Mancomunidad del Bajo Deba pondrá en marcha el nuevo sistema electrónico de apertura de contenedores marrones para residuos orgánicos...............................................................................21-22**

*Esta iniciativa busca mejorar la calidad de la recogida selectiva y hacer más eficiente la gestión de los residuos orgánicos en la comarca*

**En marcha los trabajos para elaborar el Plan Estratégico del Comercio y la Hostelería de Mendaro...............................................................23-24**

*El compromiso del Ayuntamiento es claro: fortalecer el tejido económico local y crear un entorno que favorezca su desarrollo sostenible, con la implicación activa de todos los agentes*

**El Ayuntamiento de Mendaro da pasos para recuperar los bosques y ecosistemas autóctonos ...........................................................25-26**

*Desde su pequeña dimensión, el equipo de gobierno de Mendaro muestra su disposición a dar todos los pasos necesarios para combatir el cambio climático*

**La Mancomunidad de Municipios Vascófonos (UEMA) y diversas entidades públicas han lanzado una campaña para facilitar la declaración de la renta en euskera...............................................................................27-28**

*En Gipuzkoa, este año también se utilizará el lema "Ogasunarekin euskaraz" por parte de la Diputación Foral, y UEMA lo incorporará en todos los materiales distribuidos a los municipios de Gipuzkoa*



## La redacción del proyecto del bar y del hogar del jubilado listo en unas semanas

*El proyecto que, según los dirigentes municipales, se prevé que esté redactado en pocas semanas, pretende dar una solución integral a estos problemas, aumentando y reorganizando el espacio total*

Con el proyecto del bar y del hogar de los jubilados que está diseñando el Ayuntamiento pretende dar respuesta a tres objetivos distintos. Por un lado, el Ayuntamiento entiende que el modelo de Hogar del Jubilado existente en la actualidad en Mendaro no cubre las necesidades de muchas personas que pueden estar en esa franja de edad. El de los jubilados es hoy en día un colectivo muy diverso, en el que entran personas que van desde los 60 hasta los 100 años y más allá, y en esta franja tan amplia de edad existen situaciones, sensibilidades y necesidades muy diferentes. Una residencia de jubilados como la actual debe responder a esta realidad. Es por ello que se plantea la remodelación.

Por otro lado, está la cuestión del bar del jubilado. Han pasado muchos años desde su puesta en marcha y hace tiempo que hay evidencias de que tiene problemas de espacio y de instalaciones. El espacio con el que cuenta el bar tanto para los trabajadores como para sus clientes es muy limitado.

Por último, existe un local del Ayuntamiento que comunica por la parte trasera con el actual hogar del jubilado y que se ha solido utilizar para diferentes actividades sociales o culturales, pero que es bastante precario como dotación cultural y que, por ejemplo, no cuenta con ninguna insonorización.

El proyecto que, según los dirigentes municipales, se prevé que esté redactado en pocas semanas, pretende dar una solución integral a estos problemas, aumentando y reorganizando el espacio total. Para ello el Ayuntamiento ha adquirido el local adyacente de la antigua pescadería. Según lo previsto el hogar del jubilado pasaría a estar en la zona en la que se encuentra el local del Ayuntamiento y la pescadería, contando con un acceso independiente desde la calle. Y lo que hoy en día es el hogar del jubilado pasaría a integrar

el bar, que ganaría en espacio, por un lado, para la zona de trabajo (cocina, almacén y barra) y, por otro lado, también para el público. Se contempla que la parte posterior del bar, más amplia, pueda servir para organizar actividades socioculturales de pequeño formato (charlas, exposiciones, presentaciones etc.). Y en último lugar, pero no por ello menos importante, la reforma debe servir también para modernizar toda la infraestructura y resolver de una vez los diferentes problemas que se vienen arrastrando desde hace tiempo, como pueden ser ruidos y olores.



# El Ayuntamiento de Mendaro y la Asociación In Leike organizan el Concurso "Txirristaka Saria" (Concurso de Bertsopaperak)

*El **objetivo** es fomentar la creación escrita de bertsos entre jóvenes del entorno*

Aquí tenéis las bases en donde vienen los requisitos para participar:

## Participantes

- **Categoría A:** Nacidos/as en 2011 o después (solo autores de Debabarrena)
- **Categoría B:** Nacidos/as entre 2007 y 2010 (ambos incluidos)
- **Categoría C:** Nacidos/as en 2006 o antes

## Requisitos de los trabajos

- En euskera, originales y no publicados
- Tema y métrica libre
- Obligatorio indicar el **título**, el **aire (melodía)** y cumplir criterios mínimos de calidad
- **Nº de bertsos por categoría:**
  - A: 2 a 4
  - B: 4 a 8
  - C: 8 a 12, con unidad temática
- Máx. 2 trabajos por autor en A y B; solo 1 en C

## Premios

- **Categoría A:** 100 € (1.º) y 50 € (2.º) en bonos culturales
- **Categoría B:** 200 € (1.º) y 150 € (2.º)
- **Categoría C:** 1.000 € (1.º) y 500 € (2.º) *(con retención fiscal)*

## Cómo participar

**Fecha límite:** 30 de mayo de 2025
Se puede enviar por:

- **Correo postal:** Ayuntamiento de Mendaro, Herriko Enparantza Plaza, Garagartza, 20850 Mendaro
- **Email:** kultura@mendaro.eus
- **Formulario online** en la web del ayuntamiento

**Instrucciones específicas** para cada vía de envío (se requiere incluir los datos personales en documento o sobre separado).

## Jurado y fallo

- Jurado formado por tres expertos/as en bertsolarismo.
- El fallo será **inapelable** y los premios podrán quedar desiertos.
- Entrega de premios: junio de 2025

## Otras consideraciones

- Los trabajos premiados no podrán presentarse a otros concursos.
- El Ayuntamiento se reserva el derecho de **publicar o producir** los trabajos premiados durante un año.
- Los derechos de explotación futura seguirán siendo del autor/a, salvo la primera publicación.
- Los trabajos no premiados se podrán recuperar en el Ayuntamiento durante un mes tras el fallo.




# La Mancomunidad del Bajo Deba pondrá en marcha el nuevo sistema electrónico de apertura de contenedores marrones para residuos orgánicos

*Esta iniciativa busca mejorar la calidad de la recogida selectiva y hacer más eficiente la gestión de los residuos orgánicos en la comarca*

La Mancomunidad de Debabarrena tiene previsto poner en funcionamiento un nuevo sistema electrónico para la apertura de los contenedores marrones destinados a biorresiduos. A partir del mes de marzo, el acceso a estos contenedores se realizará únicamente mediante una tarjeta electrónica o a través de una aplicación móvil.

Actualmente, la recogida selectiva en Debabarrena alcanza un 53,2%. La Ley de Residuos y Suelos Contaminados para una Economía Circular establece como objetivo lograr una tasa mínima del 55% en el año 2025, y del 60% para 2030. Con el fin de alcanzar estas metas y disminuir la cantidad de residuos no apropiados en los contenedores marrones, la Mancomunidad ha desarrollado este nuevo sistema, que aportará mayor trazabilidad y mejorará la eficacia en la separación de residuos.

La implantación de este sistema responde al compromiso de la Mancomunidad con la sostenibilidad y con los principios de la economía circular. Se pretende así fomentar una gestión adecuada de los residuos orgánicos, disminuyendo su impacto ambiental. Separar los residuos correctamente es fundamental para reducir dicho impacto y avanzar hacia un sistema de tratamiento más sostenible. Cuando los materiales se depositan en el contenedor correspondiente, se facilita su reciclaje y recuperación, favoreciendo la reutilización de recursos y reduciendo la cantidad de residuos impropios.

## Cómo funcionará el sistema

Para optimizar la recogida de residuos orgánicos, los contenedores marrones incorporarán un sistema de apertura electrónica. Las personas usuarias deberán utilizar una tarjeta electrónica o bien la aplicación móvil 'Ireki' para acceder.

- Aquellas personas que ya emplean una tarjeta para recoger bolsas biodegradables recibirán en su domicilio la nueva tarjeta.

- Las que no la reciban deberán acudir a las oficinas de atención al público habilitadas en su municipio para recogerla.
- Mediante la aplicación móvil 'Ireki' también será posible abrir los contenedores escaneando el código QR de la tarjeta.

Es importante tener en cuenta que, una vez se active este sistema, las tarjetas actuales dejarán de funcionar.

**Campaña de información y concienciación**

Con el fin de facilitar la transición hacia este nuevo sistema, la Mancomunidad lanza la campaña informativa *"Reciclar es jugar limpio. Utiliza la tarjeta marrón"*, en la que participarán entidades y deportistas locales. Esta campaña busca asociar el concepto de juego limpio con las buenas prácticas en la separación de residuos y sensibilizar a la ciudadanía sobre su importancia.

Las acciones previstas dentro de esta campaña incluyen:

- Envío de cartas informativas a todos los hogares de la comarca.
- Instalación de oficinas y carpas informativas donde se podrá obtener la tarjeta y resolver cualquier duda.
- Difusión de información detallada en redes sociales sobre el nuevo sistema.
- Servicio de atención telefónica para resolver consultas, disponible en el número 629 031 252, de lunes a viernes, entre las 9:00 y las 18:00 horas.

**En el caso de Mendaro, el uso obligatorio de la tarjeta comenzará el 12 de mayo.**

**Puntos y fechas de recogida en Mendaro:**

- Los días 8, 9 y 10 de mayo, en el Lokal Txuria (junto al hogar del jubilado).

**Horarios de atención en todos los municipios:**

- De lunes a viernes: de 10:00 a 14:00 y de 17:00 a 20:00.
- Sábados: de 10:00 a 14:00.

**Documentación necesaria para recoger la tarjeta:**

- DNI/NIE o CIF del titular.
- Algún documento que acredite la residencia (como un certificado de empadronamiento, contrato de alquiler o recibo de suministros a nombre del titular).
- Si la tarjeta la recoge otra persona, deberá presentar una autorización firmada por el titular del domicilio con los datos de ambos, además de sus respectivos DNI/NIE o CIF.

La puesta en marcha de este sistema supone un paso adelante en la mejora de la gestión de residuos en Debabarrena, al facilitar una separación más precisa y fomentar la reducción de residuos no apropiados.



# En marcha los trabajos para elaborar el Plan Estratégico del Comercio y la Hostelería de Mendaro

*El compromiso del Ayuntamiento es claro: fortalecer el tejido económico local y crear un entorno que favorezca su desarrollo sostenible, con la implicación activa de todos los agentes*

Tal y como se acordó en la reunión mantenida en diciembre con los comerciantes, el Ayuntamiento de Mendaro, con el apoyo de la asociación Dendartean, ha puesto en marcha un Plan Estratégico con el objetivo de reforzar los sectores del comercio, la hostelería y los servicios del municipio, y garantizar su competitividad y sostenibilidad a medio y largo plazo.

Durante los próximos meses se llevarán a cabo diversos trabajos para analizar en profundidad la situación actual de estos sectores, identificar retos y oportunidades, y diseñar propuestas de acción adaptadas a la realidad de Mendaro.

En una primera fase, se realizaron dos encuestas para recopilar información: una dirigida a profesionales de estos sectores y otra a la ciudadanía. Las personas residentes pudieron completar la encuesta de forma digital, accediendo a ella a través de la página web del Ayuntamiento de Mendaro.

Los y las profesionales recibieron la encuesta por correo electrónico y, además, también se les entregó en papel en sus establecimientos para facilitar su participación. Asimismo, se realizaron encuestas a pie de calle, con el objetivo de completar la visión ciudadana y recoger la opinión de quienes no participan digitalmente.

Por otro lado, se llevará a cabo un análisis de las características urbanísticas del municipio, desde el punto de vista de su relación con el comercio, la hostelería y los servicios. Esta información también contribuirá a conocer con mayor profundidad la realidad de estos sectores.

Con la información recogida en las encuestas y en el análisis urbanístico, en una segunda fase se diseñará un plan de acción concreto para mejorar la situación y dar respuesta a las necesidades detectadas.

Desde el Ayuntamiento se hace un llamamiento tanto a profesionales de los sectores implicados como a la ciudadanía para que participen activamente en este proceso. “El comercio, la hostelería y los servicios son fundamentales en la vida de Mendaro. Dan vida a nuestras calles, generan empleo, ofrecen cercanía y confianza, y estructuran la vida cotidiana del municipio. Apostar por ellos es apostar por el futuro de Mendaro”, han señalado desde el Ayuntamiento.

**En 2025 se realizarán dos campañas de bonos para apoyar al comercio local e incentivar el consumo en el municipio**

Al igual que se hizo en 2024, el Ayuntamiento prevé poner en marcha también en 2025 dos campañas de bonos. La primera de ellas se llevó a cabo entre el 22 de febrero y el 16 de marzo.

Los principales objetivos de estas campañas son: fomentar el consumo local, animando a la ciudadanía a realizar sus compras en los comercios del municipio, fortaleciendo así la economía local; apoyar al pequeño comercio, ofreciendo a los establecimientos locales una plataforma para incrementar sus ventas y su visibilidad; y reforzar la comunidad, fortaleciendo las relaciones entre los vecinos y vecinas de Mendaro y los pequeños comerciantes.



# El Ayuntamiento de Mendaro da pasos para recuperar los bosques y ecosistemas autóctonos

*Desde su pequeña dimensión, el equipo de gobierno de Mendaro muestra su disposición a dar todos los pasos necesarios para combatir el cambio climático*

Hoy en día, la comunidad científica admite mayoritariamente que una de las herramientas más importantes que tenemos para hacer frente al cambio climático es la conservación de la biodiversidad. En este sentido, en los últimos meses está llevando a cabo diversas iniciativas. A continuación, se recogen algunas de las que ya están en marcha en esa dirección.

## El Ayuntamiento de Mendaro comprará una parcela en las laderas del arroyo Intxusadi

El Ayuntamiento de Mendaro comprará una parcela de unas 40 hectáreas situada en la ladera del lado de Elgoibar del arroyo Intxusadi, que abarca concretamente las zonas conocidas como Señorabaso y Txistubaso. Durante las últimas décadas, estas tierras han estado ocupadas por plantaciones de pino insignis, pero desde las talas realizadas en 2022 y 2023 no se ha hecho ninguna nueva plantación.

Una vez formalizada la compra, el objetivo será conservar este patrimonio natural y gestionarlo de forma sostenible.

## Éxito del Día del Árbol celebrado el 16 de febrero

Además de comprar terrenos, gestionarlos de forma sostenible y recuperar sus ecosistemas, es importante que estas medidas tengan continuidad a largo plazo, para lo cual es imprescindible realizar una labor pedagógica. A este fin responden precisamente las jornadas del Día del Árbol organizadas con la participación de niños y familias, donde se aprende a valorar el importante papel de los árboles y a respetar el entorno mientras se plantan.

Al igual que el año pasado, el Día del Árbol se organizó este año el 16 de febrero en colaboración entre la asociación Arno Guraso y el Ayuntamiento, con el apoyo de

miembros de la asociación Naurtzaindia. Estos últimos ofrecieron las explicaciones necesarias y aportaron plantas y azadas. Al igual que el año pasado, las plantaciones se realizaron en los terrenos de Intsusadi-Plaza que el Ayuntamiento planea adquirir, cruzando el arroyo desde el caserío Goikola y ascendiendo por el camino. Más de 40 personas participaron y se plantaron en total 300 ejemplares de aliso y roble.

## El Ayuntamiento saca a subasta el aprovechamiento forestal de Arnogibel afectado por la banda marrón

En los montes comunales de Arnogibel, el Ayuntamiento posee varias parcelas de pinar de pino insignis plantadas en el año 2000. Aunque en sus primeros años tuvieron un buen desarrollo, en los últimos tiempos la enfermedad conocida como “banda marrón” ha afectado gravemente al crecimiento de estos árboles, que actualmente se encuentran en mal estado. Ante esta situación, el Ayuntamiento decidió en el pleno de enero sacar a subasta el aprovechamiento forestal de dichas parcelas.

Al igual que con las parcelas que quiere adquirir en la zona del arroyo Intxusadi, el Ayuntamiento tiene la intención de restaurar los bosques autóctonos, las especies y los ecosistemas también en los montes comunales. Para acelerar este proceso, se plantea retirar las viejas plantaciones de coníferas.




## La Mancomunidad de Municipios Vascófonos (UEMA) y diversas entidades públicas han lanzado una campaña para facilitar la declaración de la renta en euskera

*En Gipuzkoa, este año también se utilizará el lema "Ogasunarekin euskaraz" por parte de la Diputación Foral, y UEMA lo incorporará en todos los materiales distribuidos a los municipios de Gipuzkoa*

Con el objetivo de fomentar que los ciudadanos puedan realizar sus trámites administrativos en euskera, desde el 1 de abril, la Mancomunidad de Municipios Vascófonos (UEMA) y diversas entidades públicas han lanzado una campaña para facilitar la declaración de la renta en euskera. A pesar de que las fechas, sitios web y números de contacto varían según la diputación foral de cada territorio, el proceso es similar en todos los casos, y la campaña busca promover la elección del euskera en estos trámites.

Las diputaciones forales de Hego Euskal Herria han iniciado la campaña de declaración de la renta y patrimonio correspondiente al ejercicio 2024. En colaboración con UEMA y los municipios miembros, se ha puesto en marcha una campaña para facilitar la declaración de la renta en euskera, con el objetivo de que los ciudadanos puedan realizar sus trámites administrativos en euskera. Aunque el número de personas que presentan su declaración en euskera aumenta cada año, aún está lejos de los datos que reflejan la realidad sociolingüística, y tanto UEMA como los municipios buscan influir en este aspecto, haciendo un llamamiento a los ciudadanos para que también utilicen el euskera en sus relaciones con la administración.

En Álava y Navarra, el período para la declaración de la renta comenzará el 8 de abril. En Gipuzkoa, también el 8 de abril, y en Bizkaia, el 10 de abril, aunque las propuestas de autoliquidación y las declaraciones por internet pueden realizarse algunos días antes, según el calendario de cada hacienda foral. En todos los casos, las declaraciones podrán presentarse hasta finales de junio.

UEMA, como es habitual, coordina la campaña en colaboración con los municipios y diversas entidades públicas, adaptándola a las necesidades de cada territorio. El mensaje general es el mismo en todos los casos, pero cada hacienda foral, comarca o asociación municipal ajusta la campaña y el mensaje según su realidad sociolingüística. Asimismo, cada municipio adapta la campaña con sus propios datos y evolución. Para facilitar esta

adaptación, UEMA ha puesto a disposición carteles y folletos con el lema "Errenta aitorpena euskaraz" para que cada entidad pueda personalizarlos según sus necesidades.

Sin embargo, la situación sociolingüística no es el único factor que influye en la tendencia de los ciudadanos. En algunos casos, hay una gran diferencia entre el índice de euskaldunización y el porcentaje de declaraciones realizadas en euskera. A pesar de ello, en los municipios con mayor porcentaje de euskaldunes, se realizan más declaraciones en euskera, aunque los números y porcentajes varían considerablemente de un territorio a otro.

Por ejemplo, en Gipuzkoa, municipios como Zerain (72%), Orexa (67%), Ataun y Baliarrain (62%), y Amezketa (60%) fueron los que registraron el mayor porcentaje de declaraciones en euskera el año pasado. En Bizkaia, Mendexa (27%), Amoroto (25%), Aulesti (22%), Ispaster (20%) y Berriatua (17%) destacaron en este aspecto. En cuanto a la Diputación Foral de Navarra, aunque no se proporcionan datos específicos por municipio, se ha informado a UEMA que, en comparación con años anteriores, ha habido un pequeño cambio, y todos los municipios miembros de UEMA en Navarra se mantienen en un rango de entre el 0% y el 10% de declaraciones en euskera.